

## UDAL BATZARRAREN BILERA AGIRIA

### BILERAREN EZAUGARRIAK

**Bilera Zkia:** 4/2008

**Data:** 2008ko abenduaren 1a

**Eguna:** astelehena

**Ordua:** arratsaldeko 19:30ean

**Lekua:** Udalaren Bilera Aretoan

**Bilera mota:** ez ohiko eta presakazko bilera.

**Deialdia:** 2008ko azaroaren 26koa

### PARTE HARTZAILEAK

#### LEHENDAKARIA:

Ignacio Javier Garmendia Arruabarrena

#### ZINEGOTZIAK

Mikel Garmendia Suquia

Jose Ignacio Irastorza Garmendia

Santiago Fermin Garmendia Gorostidi

#### IDAZKARIA:

Iñaki Sainz Paredes

Alkatearen lehendakaritzapean eta aurrez hartutako erabakiari jarraituz, goian laburbiltzen dena, segidan azaltzen diren pertsonak, aipatu den leku eta datan batzartzen dira, bere izenaren alboan agertu diren ordua azalduz.

Hasteko eta Lehendakaritzaren baimenarekin, Idazkariak bilera egin daitekeela adierazten du, apirilaren 2ko 7/85 Legeko 46.2c) artikulua arabera, bilkura egiteko beharrezko kide kopurua bildu delako.

Jarraian, eguneko aztergai jasotako puntu bakoitzaren azterketari ekiten zaio.

#### **Aztergaien zerrenda:**

- 1.- Alkate Dekretuen berri ematea
- 2.- Zerga lokalak arautzen dituen ordenantzak aldatzeko proposamena.
- 3.- 2007 ekitaldiko kontu orokorrak onesteko proposamena.
- 4.- UDALHITZ onartzeko proposamena.
- 5.- Legorreta, Itsasondo, Arama, Altzaga, Gaintza eta Zaldibiako oinarritzko gizarte zerbitzuetara atxikitako giza baliabideen antolamendu eredu/eredu funtzional bizia dokumentua onartzeko proposamena.
- 6.- Gizarte langilea kontratatze baldintza pleguak onartzeko proposamena
- 7.- Gizarte langilearen administrari laguntzailea kontratatze baldintza pleguak onartzeko proposamena.
- 8.- Batzuk

**ESAN EGINAK**

## **1.- ALKATE DEKRETUEN BERRI EMATEA**

2568/1986 Erregelamendua, 1986.eko azaroaren 28koa, Udal Korporazioen Antolakuntza, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzen duena, 42. artikuluan agintzen duena betetzeko, Osoko

Bilkura honi, azken ohiko bileraz gero, Alkatetzak hartu dituen erabakien berri ematen zaizkio, jakinaren gainean egon dadin.

### **2008ko EKAINA**

RE20080630.023            2008ko ekaineko faktura zerrendaren onarpena.

### **2008ko UZTAILA**

RE20080721.024            Inaxio Elozegi Armendarizi 7. hiruurtetako onartzeko erabakia.  
RE20080722.025            Jose Arruabarrena Olanori etxez etxerako dirulaguntza eskaeraren  
   gehikuntza.  
RE20080724.026            Biztanleen errolda alta emateko Maria Aranzazu Begiristain Lasari.  
RE20080729.027            Otatza baserri zaharra botatze eta eraikitze lanetarako obra baimena,  
   Begoña Arruabarrena Mendizabalek eskatuta.  
RE20080729.028            Begoña Arruabarrena Mendizabali, eraikuntza zergaren behin behineko  
   kitapena.  
RE20080730.029            2008ko uztaileko faktura zerrendaren onarpena.

### **2008ko ABUZTUA**

RE20080814.030            Dirulaguntza eskaera, planemendurako Arauak idazteagatik  
RE20080829.031            2008ko abuztuko faktura zerrendaren onarpena.

### **2008ko IRAILA**

RE20080902.032            2008ko 1 sehilabeteko zaborbilketa eta 2008ko 2. hiruhilabeteko ur  
   hornidura zerbitzuen errolda eta kobraketa epeak onartzeko.  
RE20080930.033            2008ko irailareko faktura zerrendaren onarpena.

### **2008ko URRIA**

RE20081009.033            Construcciones y Excavaciones Zizurkili berma itzultzeko erabakia  
   (Gaintzako ur hornidura lanak 5. fasea L4, L5 eta L6) .  
RE20081010.034            Planeamenduko Arauen berrazterketa lanak idazteko aurre lanak  
   kontratzeko erabakia.  
RE20081020.035            Jose Arruabarrena Olanoren etxez etxerako laguntza eskaera  
   deuseztatzea.  
RE20081028.036            Landagipuzkoa 32 egitasmoaren babesera "Reparaciones de caminos  
   municipales" egitasmoa burutzeko laguntza eskabidea onartu.

RE20081028.037	Landagipuzkoa 32 egitasmoaren babesera "Reparaciones de caminos municipales" egitasmoa burutzeko ondasun eta eskubideak eskuratzeko eta kreditu zuzkidurak egiteko konpromezuak hartzea.
RE20081031.038	2008ko urriko faktura zerrendaren onarpena.

### 2008ko AZAROA

RE20081117.039	Eremu hondatuak lehengoratzeko laguntza deialdiaren barne "obras de reforma en el entorno del frontón y Ostatu-Etxeberri" obrak burutzeko dirulaguntza eskaera onartzeko.
RE20081117.040	Eremu hondatuak lehengoratzeko laguntza deialdiaren barne "obras de reforma en el entorno del frontón y Ostatu-Etxeberri" ondasun eta eskubideak eskuratzeko eta kreditu zuzkidurak egiteko konpromezuak hartzea.

## 2.- ZERGA LOKALAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAK ALDATZEKO PROPOSAMENA.

Dagokion Udal Batzordeak zenbait bileretan gaia aztertu ondoren, udaleko zergapide-egitura osatzen duten kontzeptu eta prezioak berrikusteari ekiten dio Bilkurak.

Banan banan udalaren eskumeneko eta menpeko zerga eta tasen azterketa egiten da.

Zinegotziek prezio fiskala mantentzearen aldeko agertzen dira, baina zerbitzu eskeintza batzuk sortzen duten desekonomiari aurre egiteko derrigorrezkoa gertatzen da, horiengatik kobratzen den zerga edo tasa haunditzea, bestetik prezioen hazkundea edo aldaketa azken urtean % 3,6 izan dela egiaztatu da INEren agiri bidez.

Eta espedientea ikusita bertaratutakoen ahobatez, **ERABAKI DA:**

**LEHENA:** Udaleko zergapide-egitura osatzen duten jarraiko kontzeptuak, prezioak eta karga tasak igotzea 2009. ekitaldi ekonomikorako hau da, 2009ko urtarrilaren 1eko ondorioekin eta adierazten den proportzioan.

- Ur hornidura zerbitzua % 3,6
- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga % 3,60
- Zaborbilketa zerbitzua % 10a.

**BIGARRENA:** Gainontzean, Ordenantza Fiskaleko testu arautzaileak, idatzita dauden bezala mantenduko dira.

**HIRUGARRENA:** Ordenantza fiskalen tarifen eranskinak, akta agiri honen eranskinan jasoko dira. (I. Eranskina).

## 3.- 2007 EKITALDIKO KONTU OROKORRAK ONESTEKO PROPOSAMENA.

2007ko udal aurrekontuaren kontu orokorren espedientearen berri ematen da.

Espedientean jasota dago Kontuetaarako Berezia Batzordeak 2008ko urriaren 6ko bileran espedientea onartzea aldeko irizpena eta 2008ko urriaren 21ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean plazaratutako iragarkia.

Jendaurreko erakustaldian ez da inolako erreklamaziorik aurkeztu.

Eta aurrekoaren arabera, espedientea ikusita, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DA:

BAKARRA: Onestea 2007. ekitaldi ekonomikoaren kontu orokorra jasotzen duen espedientea eta Kontuetaarako Euskadiko Auzitegiari igortzea.

#### **4.- UDALHITZ ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioan, EUDEL, tokiko erakundeen ordezkaria eta sindikatu esanguratsuenen artean lan-hitzarmenen ibilbide luzea dago. Euskadiko Herri eta Foru Administrazioako Langileen Lan Baldintzak Arautzeko Hitzarmenarekin (ARCEPAFE) hasi ziren, eta 2006ko martxoko Udalhitz Akordioekin jarraitu zuten. Horiei esker, lan baldintza aurreratuen marko bat egituratu da eta Euskadiko Lurralde Erakundeen eraginkortasuna, kalitatea eta herritarrei zerbitzua emateko izpiritua asko garatu da.

Langile Publikoaren Oinarritzko Estatutuari buruzko apirilaren 12ko 7/2007 Legeak, 34. artikuluan, Euskadiko udal-erakunde guztientzako lan-harremanen marko bateratua finkatzea ahalbideratzen du, berariaz aitortzen baitie EUDEL bezalako udalerrien elkarteei, negoziazio-prozesuetan toki mailako erakundeen ordezkariak bere gain hartzeko aukera.

Horrela, EUDELEk sindikatuen bitartekariekiko negoziazioen ardura hartu izana Udalen eta tokiko beste erakundeen izenean, posible egiten da. Beraz, akordioak eta sektoreko hitzarmenak formalizatuko ditu, erakunde bakoitzean berehala ezartzeko, horietara atxikita eta bestelako izapiderik egin gabe. Horrek izugarri sinpletzen du negoziazioen dinamika, eta era berean, erakunde guztien arteko lan-baldintzak homogeneizatzen dira. Hori guztia oso onuragarria da bertaratutako alderdi guztientzat.

Irailaren 22an Udalhitz 2008-2010 Akordioak sinatu dira honakoan artean: EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartea, eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatuak. Akordio horien bidez, euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dira eta udaletara igorri dira, dagozkion atxikipean gauzatu daitezten.

Bestalde, aipatu artikuluen 8. artikuluan aipatzen denez, baldintza jakin batzuk erakunde edota pertsonen eremuan mantendu ahalko dira, baldin eta Akordioa gainditzen badute, eta aurretiaz aitortutakoak badira.

Aurreko hori guztia kontuan, bildutakoen ahobatez, ERABAKI DA:

**LEHENENGOA:** Euskal toki-erakundeetako funtzionario eta langileen baldintzak arautzen dituzten Udalhitz 2008-2010 Akordioetara atxikitzea. Akordio horiek 2008ko irailaren 22an sinatu ziren EUDEL- Euskadiko Udalen Elkartearen eta ELA-STV, CCOO eta UGT sindikatueta ordezkarien artean.

**BIGARRENA:** Aurretiaz langileen alde Gaintzako Udalak aitortutako baldintza onuragarriagoak mantentzea.

**HIRUGARRENA:** Akordio hauek jakinaraztea EUDELi, Langileen Batzordeari, eta Udalean akreditazioa duten sindikatu guztiei.

**5.- LEGORRETA, ITSASONDO, ARAMA, ALTZAGA, GAINZA ETA ZALDIBIAKO OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUETARA ATXIKITAKO GIZA BALIABIDEEN ANTOLAMENDU EREDU/EREDU FUNTZIONAL BIZIA DOKUMENTUA ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Legorreta, Itsasondo, Arama, Alzaga, Gaintza eta Zaldibiako oinarrizko gizarte zerbitzuetara atxikitako giza baliabideen antolamendu eredu/eredu funtzional bizia dokumentuaren berri ematen da.

Dokumentu honen arabera, Gizarte Zerbitzuen eskeintza zabala eta egokia herritarrei bermatzeko asmoarekin egungo lanpostuak finkatzea eta herri guztien artean administrari laguntzaile lanpostu bat lantsaio erdian sortu eta betetzea eta gizarte laguntzaile lanpostu berri bat lanaldi osoan sortu eta betetzea proposatzen da.

Gauzak honela, Gizarte Zerbitzuen eskeintza, Gaintzako Udalaren kasuan jarraikoa litzateke:

- a) Gizarte Langilea: % 3,41eko lantsaioan.
- b) Gizarte Langilea: % 3,41eko lantsaioan.
- d) Administrari laguntzailea: % 3,41eko lantsaioan.
- e) Administrari laguntzailea: % 3,41eko lantsaioan.

Antolamenduari dagokionez, 6 herrien artean Batzorde mistoa osatzea proposatzen da, bertan herri bakoitzeko ordezkarri bana eta udalerrri-taldeko gizarte zerbitzuetako langileen ordezkarria parte hartuko dute.

Antolamendu berria onartzeak orain artean indarrean dagoen sistema deuseztatzea dakar eta lantaldean zein lanpostuen zerrendan behar diren egokitzapenak egitea.

Eta dokumentazioa ikusita, bertaratutakoen ahobatez, ERABAKI DA.

LEHENA: Legorreta, Itsasondo, Arama, Alzaga, Gaintza eta Zaldibiako oinarrizko gizarte zerbitzuetara atxikitako giza baliabideen antolamendu eredu/eredu funtzional bizia dokumentua onestea.

BIGARRENA: Udaleriko plantila organikoan, oinarritzko gizarte zerbituetarako hurrengo lanpostuak sortzea gizarte langileren kasuan dagokion egokierak eginez, behar diren baliabide ekonomikoak jarri eta lan eskeintza egitea.

- Gizarte laguntzailea, eranstean diren oinarrietan adierazitako ezaugarriekin, lehenagotik hutsik dagoen lanpostuaren ezaugarriak aldatuz.

- Administari laguntzailea, eranstean diren oinarrietan adierazitako ezaugarriekin.

HIRUGARRENA: Planilla organikoko hurrengo lanpostu hutsak betetzeko deialdia onestea:

- Gizarte laguntzailea, eranstean diren oinarrietan adierazitakoaren arabera.

- Administari laguntzailea, eranstean diren oinarrietan adierazitakoaren arabera.

LAUGARRENA: Zaldibiako Udaleri behar diren eskumenak ematea, 6 udalerrien oinarritzko gizarte zerbitzuetan diharduten langileekin antolamendu sistema berria eztabaida dezan, bi alderdiak asebeteko dtuen akordio bat lortzeko.

BOSGARRENA: 6 udalerrien izenean arituta, Legorretako Udalak, udalerrri horietako plantiletan hustik dagoen Gizarte Laingielaren lanpostua hornitzeko egidank deialdi publikoa bertan behera uztea.

SEIGARRENA: Lehen puntuan onetsitako antolamendu eredu/eredu funtzionalean aurrikusitako komisioan aritzeko udal ordezkaria izendatzea.

ZAZPIGARRENA: Zaldibiako Udaleri behar diren eskumenak ematea, 6 udalerrien ordezkarietan goian onetsitako lanpostuak hornitzeko prozedurak eramateko.

## **6.- GIZARTE LANGILEA KONTRATATZEKO BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA**

Gizarte Langilea kontratatzeke baldintza Pleguaren berri ematen da. Pleguaren onarpena aurreko puntuan erabakiakoak abian jartzeko ezinbestekoa da.

Eta bildutakoen ahobatez erabaki da:

BAKARRA: Gaintzako Udalaren plantilan egin beharreko aldaketak onartu eta aurkeztua izan den moduan Gizarte Langilea kontratatzeke baldintza plegua onartzea.

## **7.- GIZARTE ZERBITZUETAKO ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA KONTRATATZEKO BALDINTZA PLEGUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA.**

Gizarte Zerbitzuetako Administrari Laguntzailea kontratatzeko baldintza Pleguaren berri ematen da. Pleguaren onarpena bilera honen bosgarren puntuan erabakiakoa abian jartzeko ezinbestekoa da.

Eta bildutakoen ahobatez erabaki da:

BAKARRA: Gaintzako Udalaren plantilan egin beharreko aldaketak onartu eta aurkeztua izan den moduan Gizarte Zerbitzuetako Administrari Laguntzailea kontratatzeko baldintza plegua onartzea.

### **8.- BATZUK**

Atal honen barruan, 2009. urteko lan-egutegi orokorraren berri ematen da. Bertan jasotakoaren arabera, 2009. urteko lanegunak 245 dira eta zubiak 4, beraz, langileak egin beharreko lansaioa, alegia 1.592 ordutakoa, 218 lanegunetan zehar banatu beharra dauka, eguneko 7 ordu eta 20 minutu izanik lansaio osoa betetzeko lanaldia.

Eta bileraren helburua beteta, bileraren Lehendakariak, Alkateak, bilera amaitutzat eman zuen, arratsaldeko zortziak eta hogeita hamar zirenean.

O.e.  
Alkateak

Sin. Ignacio Javier Garmendia Arruabarrena